

**“Aplikatu behar zaion araudia”**  
**(Gardentasunari buruzko Legearen 6. artikulua)**  
**DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA SA**

DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA SA, kapital osoa Donostiako Udalaren jabetzapean duen merkataritza sozietatea den heinean, honako hauen mende dago batez ere:

- (i) Tokiko sektore publikoa osatzen duten sozietateei aplikatu behar zaizkien araua;
- (ii) Kapital sozietateen gaineko legea (eta, zehatzago, sozietate anonimoen legea) arautzen duen merkataritza araudia, toki erregimeneko araudiak espezialitateak aurreikusten dituen gaietan egokituta;
- (iii) Bidaiarien hiri barruko garraio zerbitzua arautzen duen araudi sektoriala. Hona hemen DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA SAK hiri barruan ematen duen bidaiarientzako garraio zerbitzua arautzen duten arau nagusiak:
  - 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriei buruzkoa.
  - 4/2004 Legea, martxoaren 18koa, Euskal Herriko Bidaiarien Errepideko Garraioari buruzkoa.
  - 16/1987 Legea, uztailaren 30ekoa, Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzkoa, uztailaren 4ko 9/2014 Legean adierazten den moduan idatzita.
  - 51/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Sailarena, Bidaiarien Errepideko Garraioari buruzko Erregelamendua onartzen duena.
  - 1211/1990 Errege Dekretua, irailaren 28koa, Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko Legearen Erregelamendua onartzen duena.
  - Donostiako Hiri Garraio Publikoko Zerbitzuaren Arautegia. Arautegia, Donostiako Udalaren Udalbatzak 2001eko uztailaren 13an hartutako erabakiz behin betiko onartu, eta 2001eko abuztuaren 16an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (156 zenbakiko aldizkaria), eta, ondoren, 2005eko abenduaren 27an, partzialki aldatu zen. Aldaketa, udal horren Udalbatzak osoko bilkuran hartutako erabakiz onartu zen, eta 2006ko urtarrilean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (11 zenbakiko aldizkaria).